

BILBAO BALIOEN HIRIA

# BALIOEN VADEMECUM-A

Etika Aplikatutako  
Deustuko Unibertsitatea  
Bilbao, 2016ko abendua

# Giza Eskubideekiko errespetua

## Definizioa

Giza eskubideak pertsona guztiek pertsona izateagatik dauzkatenak dira. Arau gisa formulatzen dira; eduki etiko handia, ondorio politikoak eta nazio eta nazioarte mailako ordenamendu juridikoetan jasotako legezko bermeak dituzte.

Ikuspegi etikotik, giza eskubideak pertsonaren duintasunaren aitortzean oinarritzen dira eta duintasun hori defendatzea dute helburu. Pertsonak duintasun horren arabera bizi ahal izateko gutxieneko baldintza sozialak, ekonomikoak eta kulturalak ere jasotzen dituzte.

Giza eskubideen aitortzea prozesu historiko baten emaitza da; izan ere, gizateriak bide luzea egin du pertsonaren berezko balioaz jabetzeko eta pertsona bakoitza berez helburutzat hartu behar dela eta ez dela beste helburu batzuk lortzeko baliabide bihurtu behar sinesteko. Pertsonaren duintasunaren esanahia zabalduz joan da une historiko bakoitzean, dimentsio eta zehaztapen berriak aitortu ahala.

Ikuspegi politikotik, giza eskubideak tresna garrantzitsua dira gizarte eta erakunde aldaketak sustatzeko. Arau esparru hori onartuz gero, errealitate sozial eta politiko oro jarri behar da giza duintasunaren defentsaren mende. Logika horren ondorioz, giza eskubideak bermatzeko lege arauak garatu dira eta gure ordenamendu juridikoan lege hierarkiaren gailurrean daude.

Giza eskubideek hiru funtsezko ezaugarri dituzte. Lehenengo eta behin, eskubideak berberak dira pertsona guztientzat; ez dago eskubide desberdinik pertsona desberdinentzat, ez eta eskubideen aitortze mailarik ere. Bigarrenik, besterenezinak dira; pertsonari ezin zaizkie kendu, izan ere, inork ezin dio gizaki izateari utzi, jokaera gizagabea edukita ere. Hirugarrenik, unibertsalak dira; izan ere, gizaki guztiei dagozkie, edozein izaera eta egoera izanda ere.



## Lotutako jokabideak

Giza duintasuna sustatzeak honako eragin hauek ditu gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen jokabideetan.

### Herritarrak

Giza eskubideak herritar eskubideen aitortzean oinarritzen dira. Haien bidez pertsona bakoitzaren duintasunarekiko errespetua bermatzen da eta errealizazio pertsonalerako plataforma dira. Hala ere, adierazi beharra dago giza eskubideak sustatzen direnean, pertsona bakoitzak gainerako eskubideekiko betebeharrak hartzen dituela bere gain. Alde batetik, pertsona bakoitzaren ardura da gainerako pertsonen giza eskubideak mugatzen dituen ezer ez egitea. Baina, babes “pasibo” horrez gainera, giza eskubideak aitortzeak pertsona guztien kasuan eraginkortasunez bete daitezten aktiboki sustatu beharra dakar.

### Gizarte erakundeak

Gizarte erakundeek zeregin bikoitza izan dezakete giza eskubideen sustapenean. Lehenengo eta behin, funtsezkoak dira eragile publiko eta pribatuek giza eskubideak errespetatzeko, herritarrak hezteko, salatzeko, talde ahulak babesteko eta presio politikoa egiteko jardueren bidez. Bigarrenik, gizarte zibileko erakundeek, herritar talde berezien ikuspegia beren gain hartuta, gai dira giza eskubideen esanahi historikoa eta zehaztapen sozial eta politikoa zabaltzeko. Giza eskubideen benetako defendatzaile eta sustatzaile izateko, gizarte erakundeek giza eskubideen irismen unibertsala hartu behar dute beren gain, pertsona guztiek goza ditzaten.

### Udala

Udalari dagokio, udalerriko gobernua denez gero, bere eskumenen barruan, bere jurisdikzioaren barruan elkarrekin bizi diren pertsona guztien funtsezko eskubideak bermatu eta sustatzea. Udalak zeregin bereziki garrantzitsua du, pertsona guztiek, beren ezaugarri eta egoerak gorabehera, dagokien duintasunaren arabera bizitzeko gaitasuna izateko behar diren baldintza sozioekonomiko eta kulturalak izan ditzaten sustatzeko.

# Elkartasuna

## Definizioa

Elkartasuna da gizakiok elkarrekin erlazionatzeko dugun moduaren ondorioz gertatzen diren bidegabekieretan dugun erantzukizun partekatua aitortzea, errealitate horretaz jabetzea eta halako egoera bidegabeei buelta ematea, giza eskubideen ezarpenaren bidez.

Elkartasuna agindu bat da, eta erkidego politikoari eskatzen dio ahultasun eta desabantaila egoeran dauden gizabanako edo gizataldeen alde jarduteko, esku hartze kolektiboaren bidez, bidegabeko kalterik gerta ez dadin edo dagoeneko badagoen kaltea luzatu edo errepika ez dadin.

Elkartasuna pertsona guztien duintasun komunaren aitorpenean oinarritzen da; beraz, duintasun hori hautsiz gero, kolektiboari eragingo dio. Elkartasunezko jokabidean, enpatia sentimendu handia dago pertsona gisa barik gauza gisa tratatzen denaren aurrean. Halako egoeretan nork erantzukizuna bere gain hartu eta kalteen gaineko analisi zorrotza egin behar du, eta, ondoren, lan egin pertsonen duintasuna erreparatzeko eta kausak aldatzeko.

Elkartasunak, bidegabekeriaren aurreko erantzukizun partekatu gisa ulertuta, ezaugarri hauek ditu:

- o Eragina du erkidego politikoan, eta ez bakarrik gizabanako eta kolektibo berezi batzuetan: pertsona guztiok gara (edo ez), gure jarduketa eta erabaki politikoan ondorioz, toki mailakoak edo globalak izan, kaltetuak direnen zoriaren erantzule.
- o Eskubide kolektiboa sortzen du gizarte demokrazia instituzionalizatu dadin eta demokrazia horrek egiturazko bidegabekeriaren aurka borrokatzeko bide instituzionalak eskaini ditzan.



- o Subsidiariorotasun printzipioa aitortzen du, pertsonen, erakundeen eta instituzio publikoen jarduketan herritarren askatasuna eta erantzukizuna babestuta egon daitezen.

## Lotutako jokabideak

*Elkartasuna* deritzon balioak era eta neurri desberdineko inplikazioak ditu balio horren sustatzaileak diren hiru agenteen (gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen) jokabideetan.

### Herritarrak

Herritar solidarioek bidegabekeria sufritzen dutenekiko enpatia eta hurbiltasuna agertzea espero da. Gainera, ustez gai dira egoera bidegabea aztertzeke, hau da, tartean diren eragileak eta haien erantzukizun mailak (eginagatik edo ez eginagatik) identifikatzeko, eta biktimaren ondoan jartzeko. Azkenik, inplikazio maila eraldatzailea eskatzen diegu, euren ahalmenaren neurrian, ahalmen txikia erantzukizun pertsonala baztertzeke aitzakia izan gabe.

### Gizarte erakundeak

Espero dugu gizarte erakundeek gizarte harreman bidegabeak ez biderkatzeke edo ez mantentzeke moduan diseinatzea beren jarduera. Giza eskubideak sustatzeko eskatzen zaie, erakundearen barrura zein kanpora begira. Antzemandako bidegabekeria zuzentzeke neurriak hartzeke eta ezartzeko ahalmena dutela uste dugu, ekintza solidario indibidual zein kolektiboaren bitarteko izanik, eta badakigu haien lana ezinbestekoa dela elkartasunezko gizarte harremanen sarea eratzeke. Elkartasunak, benetakoa izateke, ikuspegi unibertsala izan behar du, eta ez bakarrik tokikoa.

## Udala

Hau da elkartasunaren maila kolektibo eta politikoena, elkartasuna erantzukizun partekatu gisa ulertuta. Udalen zeregina da, batez ere, toki mailan eta beste maila batzuetan, dagozkien eskumenen arabera, egiturazko bidegabekeria minimizatzeko politika publikoak diseinatzea eta legeria egokia prestatzea. Hemen interes berezia du gogoratzeak "pertsona guztien eskubidea dela Aldarrikapen honetan azaldutako eskubide eta askatasunak era eraginkorrean garatuko dituen gizarte mailako eta nazioarteko ordena ezar dadin" (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala, 28. art.), baita elkartasuna betebeharra dela eta subsidiarotasun printzipioarekin lotuta dagoela ere.

# Parte hartzea

## Definizioa

Herritarrek parte hartzea da pertsonak eta erantzukizun instituzional zuzenik ez duten gizarte erakundeek ekarpena egitea bizikidetzara hobetzeko. Parte hartzeak jarduera ugari hartzen ditu, besteak beste, boluntarioria edo protesta publikoa. Zentzurik hertsienean, herritarren parte hartzea herritarrek beren ahotsa entzunarazteko eta erakunde publikoen erabakietan eragiteko erabiltzen dituzten mekanismoekin identifikatzen da. Ohiko mekanismoak eztabaida publikoa, kontsultak eta herritarren mobilizazioak dira.



Parte hartzea eztabaidatzeko mekanismoen bidez instituzionalizatzeak bost efektu positibo ditu: (i) herritarrek parte gehiago hartzen dute prozesu politikoetan eta, hartara, legitimazio handiagoa ematen diete eta demokraziarekiko konpromisoa sendotzen dute; (ii) herritarrek aktiboagoak egiten dira eta denon onaren ardura eta erantzukizun handiagoa hartzen dute; (iii) politika publiko eraginkorragoak eta testuingurura egokitzen direnak diseinatzen laguntzen du; (iv) erakunde demokratikoen gizarte kontrola sustatzen du; eta (v) erakunde publikoen erreforma prozesuei ematen die bide.

Herritarren parte hartzeak boterearen banaketa dakar. Banaketa hori bidezkoa izateko, erakundeak eta gizarte taldeak sentsibilitate berezia izan behar dute parte hartzeko prozesuetan normalean ahotsik izan ez duten taldeak sartzeko. Ekintza positibo horren bidez lortu nahi dena da, botere asimetria handiak dituen gizartean, parte hartzeko mekanismoak beren interesak gailentzeko ahalmen eta baliabide gehien duten gizarte taldeak hauta ditzaten ekiditea.

## Lotutako jokabideak

Herritarren parte hartzea sustatzeak honako eragin hauek ditu gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen jokabideetan.

### Herritarrak

Kontu publikoetan parte hartzea kostu handikoa da, ikuspuntu pertsonaletik. Interesa, ahalegina eta denbora behar dira beharrezko informazioa biltzeko, proposamenak sortzeko eta eztabaidatzeko espazioetan parte hartzeko. Gainera, herritarrek, sarritan, beren ideiak behar den forora eramateko eta arlo publikoaz edo komunaz duten arduraren eraginkor egiteko, beste batzuekin batera joan behar dute. Parte hartuz ikasten da parte hartzen.

### Gizarte erakundeak

Gizarte erakundeek funtsezko eginkizuna dute parte hartzearen egituraketan. Halako erakundeetan ikasten dute herritarrek parte hartzen, haien zeregina ezinbestekoa da proposamenak sortzeko, eta gizarte sektoreen interesak biltzen dituzte. Hori dela eta, erakundeek euren barruan parte hartzeko mekanismoak sustatu behar dituzte. Parte hartzea eraginkorra izan dadin boterea zuzentasunez banatzeko, gizarte erakundeek ahalegin berezia egin behar dute baztertutako taldeen ikuspegia txertatzeko, bai eta zailtasun gehien dutenena ere, haien ahotsa entzunarazteko.

### Udala

Herritarrek hiriko gobernuan parte hartzeko, eztabaidari eta kontsultari bide ematen dieten mekanismo instituzionalak behar dira. Parte hartze eraginkorrerako balio izateko, parte hartzaileek aukera izan behar dute parte hartzeko espazioen arauak diseinatzen eta eztabaidagaiak zehazten laguntzeko. Ordezkaritza demokratikoek, erakundeen funtzionamendu zuzenaren bermatzaile gisa, ahalegina egin behar dute (i) herritarren parte hartzea funtsezkoa eta eraginkorra izateko beharrezko informazio guztia eskaintzeko; (ii) taldeen parte hartzea bermatzeko eta errazteko, bereziki gaitasun gutxiago dutenena; (iii) hartutako akordioaren betetzeaz kontuak emateko mekanismoak ezartzeko.



# Konfiantza

## Definizioa

Konfiantza da norberaren erakunde edo komunitateko gainerako pertsonen jokabidea espero dena, zintzoa eta elkarlanekoa izango dela uste izatea. Jokabide mota hori taldeko pertsonak zabal partekatzen dituzten balio eta arauetan oinarritzen da. Uste hori gizartean orokortzeak pertsonen ongizate psikologikoa sustatzen du, proiektu kolektiboak heltzea ahalbidetzen du eta erakundearen legitimitatea sendotzen du. Konfiantza pertsonen artean eta pertsonen eta gizartearen egituratzen duten erakunde eta instituzioen artean dauden elkarreraginetan garatzen den esperientzia da. Esate baterako, pertsona batek konfiantza edo konfiantzarik eza izan dezake herritarren asmoen gainean, baina baita agintarien, poliziaren edo gizarte erakundearen gainean ere.



Konfiantza hertsiki lotuta dago bi gizarte jarrerarekin: elkarrizketa eta elkarlana. Hirurak daude loturik eta berrelikatu egiten dira eta, horrela, kasurik positiboetan, elkar indartzeko zirkulu birtuosoak sortzen dute. Horrela, elkarrizketa espazioak egoteak pertsona desberdinen arteko elkarreraginari bide ematen dio, eta horrek konfiantza eragiten du eta elkarlana sustatu. Aldi berean, konfiantza gehiago izateak elkarrizketa eta elkarlana errazten ditu, eta elkarlana egoteak elkarrizketa eta konfiantza sendotzen ditu. Talde baten edo gizarte baten barruko konfiantzazko harremanak nagusitzeak dakartzan gaitasunei *gizarte kapitala* esan izan zaie azken hamarkadotan.

Konfiantzak eta lotutako jarrerak alderdi negatiboa ere izan dezakete, baldin eta gizarteko talderen batek beste talde batzuk baztertzeko edo baztertzeko saiatzeko erabiltzen badu bere barne kohesioa. Hortaz, konfiantzak, elkarrizketak eta elkarlanak, benetako balioak izateko,

dimentsio solidarioa izan behar dute eta gizarte talde jakinen bazterketa indartzen duten aurreiritzi eta estereotipoei aurre egin.

## Lotutako jokabideak

Konfiantza sustatzeak honako eragin hauek ditu gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen jokabideetan.

### Herritarrak

Konfiantza, elkarriketa eta elkarlan espiritua eguneroko elkarreraginaren eremuan sustatzen eta transmititzen dira lehen-lehenik. Hala ere, egunerokotasuna ez da bat-batekotasunaren sinonimoa. Eguneroko elkarreraginak munduaren eta bizi dugun gizartearen ikuspegiekin lotuta daude, eta ikuspegi horiek gizartean eraikitzen dira. Konfiantzaz jarduteko konpromiso pertsonala, kontrakoa pentsatzeko zantzu argirik ez badago, lehen urratsa da aurreiritziak apurtzeko eta konfiantzazko espazioak zabaltzeko. Konpromiso hori bereziki garrantzitsua da belaunaldi berriak prestatzeko ardura duten pertsonen kasuan.

### Gizarte erakundeak

Mota guztietako gizarte erakundeek funtsezko zeregina dute pertsonen arteko eta taldeen arteko konfiantza sortzeko. Diskurtsoek, irizpideek eta funtzionamenduak desberdinen arteko elkarriketa eta elkarlanerako espazioak sortzen lagundu edo zaildu dezakete. Bereziki garrantzitsua da komunikabideen zeregina, ahalmen handia baitute konfiantzarik eza sustatzen duten estereotipoak hedatu daitezen sustatzeko edo ekiditeko.

### Udala

Erakundeek hiriko biztanle guztiak berdintasunez tratatzea eta gardentasunez eta egiazkotasunez aritzea funtsezkoak dira sinesgarritasuna eta konfiantza sortzeko herritarren artean. Horrez gainera, hiri bateko gobernuak elkarrekiko konfiantza susta dezake, desberdinen arteko elkarriketa eta elkarlanerako espazioak sortuz. Bereziki garrantzitsua da elkarbizitzarako funtsezkoak diren gaien eztabaida-erabaketan interesdun guztiak sartzea eta, horretarako, taldeek elkar aitatzat har dezaten laguntza ematea.

# Sormena

## Definizioa

Sormena zerbait orijinala eta ezohikoa egiteko gaitasun gisa definitzen da. Nolabait, sormena berrikuntzaren ataria da; izan ere, berrikuntza sormen prozesuan egindako ideien gauzatzeko praktikoa da. Baina egia da sormenak ez dakarrela ezinbestean eta beti berrikuntza; hala gertatzen da, normalean, proposamen sortzaileak eragiteko dinamikez elikatzen den berrikuntzaren kudeaketa prozesuetan; proposamen horietako askok ez dituzte praktikan jartzeko beharrezko probak gaindituko. Beste eremu batzuetan, ordez, hala nola artean eta kulturaren, sormen prozesuak bi urrats horiek biltzen ditu, alegia, ideia (sormena) eta produktua (berrikuntza).



Sormen prozesua balioztatzen hartzen da, gizabanako eta gizateria moduan aurrera egiteko modua ematen diguten dinamismoetako bat den neurrian. Gure gizarteetan, hain dinamikoak eta aldakorak izaki, berria dena bilatzea edo ezezaguna dena ikertzea, gizakiaren berezko bulkada den hori, gizarte balio bilakatu da. Beharrezkoa da gizakiaren eta gizateriaren joera hori sustatzea ez ezik, baita dagokion neurrian baloratzea ere, nobedadearen eta balioaren arteko azaleko identifikazioetan erori gabe.

Hori horrela, garrantzitsua da nabarmentzea jarrera eta jardura sortzailea eta berritzailea balio moral gisa hartzen badugu, sortutakoaren gizarte balioa ere planteatu behar dugula. Ikuspegi etiko horretatik, berrikuntza dakarren sormenak, sarritan “gizarte sormena” esaten diogun horrek, are balio handiagoa hartzen du; izan ere, berari esker, sortutakoak zuzeneko edo alboko ondorio kaltegarririk ez ekartzeaz gain, gizarte bidezkoagoak eraikitzen lagundu dezake.

## Lotutako jokabideak

Sormena/berrikuntza sustatzeak honako eragin hauek ditu gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen jokabideetan.

### Herritarrak

Sormena hainbat gaitasunekin, besteak beste, jakin minarekin eta pentsamendu kritikoarekin, hertsiki loturik dagoen balioa da. Herritar sortzaileak ingurunearekin elkarreraginean jarduteko borondatea behar du, planteatzen dizkion erronkak bere erronkak direla ulertzeko eta bere gain hartzeko borondatea. Hala ulertuta, sormena eta erantzukizuna besteekiko eta bizi dugun ingurunearekiko harremanetan eratzen den espazio moralean daude, espazio moral horrek aldatu behar dena aldatzeko ardura gure gain hartzera bultzatzen baikaitu. Dinamika horretan, herritarrak, sortzaile ez ezik, sormenaren eskatzaile ere bilakatzen dira, zer aldatu, birsortu edo gainditu behar den agerian jartzeko eta aldatu dadin eskatzeko gai diren neurrian.

### Gizarte erakundeak

Gizarte erakundeek funtsezko eginkizuna dute gure gizarteek dituzten arazoan ezagutzan eta aitortzean, arazo horiek berriak izan zein denbora luzez erantzunaren zain daudenak izan. Rol horrek berrikuntzarako benetako palanka bilakatzeko erantzukizunaren aurrean jartzen ditu; denon onak lortzera bideratutako alternatiba sortzaileak identifikatzeko, proposatzeko eta esperimentatzeko ardura dute. Modu berean, gizarte erakundeek funtsezko zeregina dute prozesu berritzaileen balorazioan, baita prozesu horiek gure gizarteetan hainbat eremutan, hala nola iraunkortasunean, berdintasunean eta abarretan duten eraginaren balorazioan ere.


## Udala

Nahiz eta sormenaren garapenean dimentsio indibiduala baden, prozesu sortzaile berritzaileak ingurune egokia behar du sormena egokiro pizteko eta orientatzeko. Gainera, jakintzaren eta esperientzien trukeak, eztabaidak eta esperimentazioak aberastu egiten dute sormena. Era horretako prozesuak ezin dira merkatuaren logikaren arabera bakarrik suspertu, arrisku osagai bat izaten dutelako halabeharrez eta, sarritan, ikuspegi ekonomiko hutsetik egoki baloratzen ez diren arazoei erantzuten dietelako. Administrazio publikoek funtsezko eginkizuna dute denon ona lortzera bideratutako ingurune sortzaile eta berritzaileen sustapenean. Era berean, gizarte erakundeez hitz egitean esan dugun bezala, erantzukizuna dute prozesu berritzaileen eraginen balorazioan ere, beste gizarte eragile batzuekin batera.

# Emakume eta gizonen arteko berdintasuna

## Definizioa

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna pertsonaren duintasun unibertsalean oinarritzen den balioa da, nazioarteko zuzenbidearen betebeharra eta, ondorioz, gainerako oinarritzko eskubideen printzipio inspiratzailea. Berdintasuna lortzeko, bazterketarik eza (*legezko berdintasuna*) ez ezik, *aukera berdintasuna* (aukerak eta baliabideak) ere behar da. Parekotasuna justizia kontua da eta erronka jotzen dio demokrasiari; izan ere, parekotasuna lortuko bada, *ekintza positiboko* neurriak behar dira. Halako neurriak are beharrezkoagoak dira, generoaren arabera botere asimetriak gizarte klasearen, arrazaren edo erlijioaren ondorioz handiagoak direnean. Bestalde, berdintasunak ez du homogeneotasunaren edo uniformetasunaren sinonimo izan behar, ezta desberdinak garelako jakin eta onartzea desberdintasuna justifikatzeko erabili ere.



Historikoki, feminismoa –filosofia moral eta politikoa eta gizarte mugimendu plurala– emakumeen mendekotasunaren aurkako eta patriarkatutik emantzipatzearen aldeko borrokaren eragilea izan da, kontuan hartuta patriarkatuak etxeko esferan eta zaintzan ixten zituela emakumeak, beheragoko mailan dauden eta babes eta zaintza maskulinoaren beharra duten gizakitzat hartuta. Berdintasunaren defentsan inplikaturako hainbeste emakume belaunaldiren memoria kolektiboak argi erakusten digu norainokoa den aldaketen irismena, etikoki aintzatetsi beharrekoa. Borroka horien ondorioz, nazio eta nazioarte mailako erakundeek eta arauak, pixkanaka, emakumeen giza eskubideak jaso eta berdintasun planak

sustatu dituzte, bai administrazioetan bai gizartean, emakumeen ahalduntze pertsonala, laborala eta soziopolitikoa sustatzeko.

Hala ere, asimetriek bere horretan diraute, zuzeneko indarkeriaren, egiturazko indarkeriaren eta indarkeria kulturalaren arteko konplizitateen ondorioz. Lehenengoa (fisikoa, ahozkoa, sexuala, psikologikoa) da agerikoena. Baina, horren azpian, gizarte egitura bidegabeak daude, hainbat ondorio dakartenak, bi aipatzearren, soldata arrakala, “kristalezko sabaia” deritzona, emakumeak goi karguetara iristea zailtzen duena, eta emakumezkoen jardunaldi bikoitza. Aldi berean, egitura horiek legitimatuta eta naturalizatuta daude; izan ere, bada marko legitimitzaile ikusezin bat genero estereotipoak eta hainbat motatako mikro matxismoak elikatzen jarraitzen duena.

## Lotutako jokabideak

Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeak honako eragin hauek ditu gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen jokabideetan.

### Herritarrak

Genero berdintasuna defendatzen duten herritarrengandik espero da sozializazio eragileek, familiak barne, haurtzarotik transmititzen dituzten zenbait eredu eta mezuren osagai sexisten kontziente izatea. Eta bikote harremanak eta gurasotasuna bizitzeko moduan parekidetasuna zaintzea eta identitate maskulino eta femenino egokiak bultzatzea, biek modu harmonikoan uztartu ahal izateko lanbidean aurrera egiteko gogoia, gainerakoen zaintza eta afektuzko sentimenduen adierazpena.

### Gizarte erakundeak

Gizarte erakundeengandik espero dugu beren barne eta kanpo jarduera gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko moduan diseinatzea. Garrantzitsua da parekotasunaren alde borrokatzen diren emakume eta gizonen elkarleen arteko sinergiak sustatzea, eta beste elkarte batzuekikoak ere bai, ze hainbat elkartek, parekotasuna haien helburu nagusia ez ba ere, irizpide hori hartuta beste era batera birdefinitu ditzakete euren lehentasunak eta estrategiak. Zeregin garrantzitsuak dituzte, hala nola emakumeek gizateriari jakintzaren hainbat eremutan eginiko ekarpenak ezagutaraztea eta balioestea,

esfera publikoan eta komunikabideetan hizkera ez sexista defendatzea, feminitate eta maskulinitate berriak eratzeko lan egitea eta genero indarkeriaren aurka borrokatzea.

## Udala


Erantzukizun publikoko eremu honetan, emakumeen elkarrekin elkarrekin jarduerak eraginkorrak garatu behar dira honako alderdi hauek sustatzeko: a) emakumearen lidergoa eremu politiko, ekonomiko, sozial, zientifiko, kultural eta mediatikoan; b) laneko bizitzaren eta norberaren bizitzaren arteko kontziliazioa, gizon eta emakumeen erantzunkidetasunaren ikuspegitik; c) zero tolerantzia genero indarkeriarekin.



# Ingurumenaren iraunkortasuna

## Definizioa

Ingurumenaren iraunkortasunaz ari garenean, biosferaren baliabideen babesa eta kalitatea bermatzen duten giza jarduerak egituratzeko moduez ari gara. Hiri testuinguruan, ingurumenaren iraunkortasunak esan nahi du garapen politiken bidez, zerbitzu publikoen eskuragarritasuna bermatzearekin batera, ingurune ekologikoaren gaineko eragina ahalik eta txikiena izan dadin ahalegintzea. Tokiko ingurumenaren iraunkortasuna baliabideen erabilera eraginkorra, hondakinen kudeaketa egokia eta ingurumenarekin errespetuzkoak diren herritarren jarrerak sustatuz lortzen da.



Ingurumenaren iraunkortasunaren kontzeptua gizakien eta beren natura ingurunearen arteko harremanekin lotuta dago. Hasieran, iraunkortasunaren ikuspegia funtsean ekonomikoa eta antropozentrikoa izan zen. Giza bizitzari eusteko beharrezko baliabideak epe luzean kontserbatzea zen helburua, une historiko bakoitzeko irizpide ekonomikoen arabera. Ikuspegi horretan, baliabideak eraginkorrago erabiltzeko eta giza jardueraren ondorioak gutxitzeko irtenbide teknikoak sortzea zen funtsezko estrategia. Azken urteotan, naturari eta gizaki bakoitzari berezko balioa ematen dien ikuspegiari ireki zaio bidea, eta gainditu egin da gizakiarentzako erabilgarritasunaren irizpidea. Ikuspegi horrek argi erakusten du ingurumenaren iraunkortasuna ez dela kontu tekniko hutsa; aitzitik, balio aldaketa eskatzen du, eta naturarekiko errespetuzko jarrera.

Hiru dimentsio garrantzitsu hartu behar dira kontuan ingurumenaren iraunkortasunaren esanahia ulertzeko. Lehenengo eta behin, ingurumenaren iraunkortasuna globalki pentsatu behar da, tokiko espaziotik harago; izan ere, ekosistema planetarioak elkarri lotuta daude. Bigarrenik, epe luzerako kontua da, ekosistemak etorkizuneko belaunaldientzat kudeatu behar dira eta. Hirugarrenik, ingurumenaren iraunkortasuna modu integralean ulertu behar

da, faktore ekologikoak, ekonomikoak eta sozialak errespetatuz eta eraginkortasunez bateratuz.

## Lotutako jokabideak

Ingurumenaren iraunkortasuna sustatzeak honako eragin hauek ditu gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen jokabideetan.

### Herritarrak

Ingurumenaren iraunkortasuna bultzatzeko, herritarrek tokiko eta munduko ingurumen arazoen jakitun egon beharko lukete, kontsumo ereduak eta bizitza estiloak aldatu (esaterako, hondakinak murriztu, birziklatu eta berrerabili) eta naturarekiko eta landa ekosistemekiko jarrera arduratsuagoa, konprometituagoa eta solidarioagoa izan. Halaber, kontuan hartu beharko lukete oso jasangarriak ez diren banako jardueren eragin metagarria; izan ere, banako jarduera horiek batzen direnean, kolektibitatean eragina duen kalte esanguratsua eragiten da. Pertsonak eta familiek ere iraunkortasunaren, justizia sozialaren eta erantzukizunaren aldeko balioak eta jokabideak transmiti diezazkiekete etorkizuneko belaunaldiari.

### Gizarte erakundeak

Gizarte erakundeek zeregin oso garrantzitsua dute herritarrak ingurumenaren iraunkortasunaren eta ingurumeneko arazoen inguruan kontzientziatzeko, partaidetzazko irtenbideak adosteko eta proposatzeko eta ingurumeneko politikak zalantzan jartzeko eta arazo ekologikoen atzetik dauden egiturazko kontuak (politikoak eta ekonomikoak) agerian uzteko orduan. Aldi berean, gizarte erakundeak funtsezkoak dira jokabide jasangarriak herritarren artean komunikatu eta zabaltzeko; horrela, benetako aldaketa soziala eta etikoa bideratuko da, ingurumenaren iraunkortasunaren tokiko kultura eratzeke.

### Udala

Udalak, herritarrengandik hurbilen dagoen tokiko agintea izaki, azpiegiturak sortzeko eta mantentzeko agindua du, bai eta, ingurumenaren iraunkortasun printzipioei eutsiz, herritarren ongizatea sustatzen duten ekonomia eta gizarte politikak abiaraztekoa ere. Udalak, beraz, ingurumenaren iraunkortasuna bere kudeaketan txertatu behar du eta, horretarako, udal arau

batzuk ezarri behar ditu. Horien bidez, hainbat alderdi arautuko dira, besteak beste: hiriko espazio naturalak babestea, hondakinak kudeatzea, airearen kalitatea mantentzea edo hirigintza iraunkorra garatzea. Aldi berean, ingurumenarekin errespetuzkoak diren herritarren jokabideei eman beharko die bide, besteak beste, birziklapenari, kontsumo arduratsuari edo hain kutsagarria ez den garraio publikoaren erabilerari. Udalak berak hausnartu eta aldaketa egin behar du erakunde jokabide, politika eta teknika iraunkorretara bideratuta.

# Konpromisoa

## Definizioa

Jatorriz, «konpromiso»tzat ulertzen da beste pertsona edo erakunde batzuen aurrean hartzen den betebeharra. Keinu, hitz edo dokumentu baten bidez, geure burua beste batzuekin adostutakoa egitera edo betetzera lotzen dugu.

Jatorrizko esanahi horretatik eratorrita, konprometitzearen ondorioz hain zuzen ere konpromisoa modu egokian betetzeko hartzen ditugun jarrera, dedikazio eta jokabideei ere esaten diegu «konpromiso». Horrela ba, hartutako konpromisoak jokabide konprometitua dakar eta jokabide horrek, aldi berean, pertsona edo erakunde «konprometitu» bihurtzen du barne-barnean hala jokatzeko duena.

Konpromisoaren esparrua gizartearen eta herritarren errealitatea denean, «konpromiso zibiko»az ari gara, alegia, gizarte erakunde bat osatzen duten pertsonak, banaka eta talde moduan, dauzkaten erantzukizunez, beren gaitasunak eta aukerak denon onaren eta helburu kolektiboen zerbitzura jartzeko.

Esan dezakegu konpromisoa oinarrian bi giza jokabidetatik datorrela: promesatik eta elkarlanetik. Alde batetik, pertsonak aldakorrek garelako eta ezin ditugulako erabat aurrean gure ekintzen ondorioak; gabezia horiek promesen bidez arintzen saiatzen gara eta promesek konpromisoa sortzen dute. Bestetik, beste gizaki batzuekin partaide eta erantzunkide sentitzen garelako, haiekin identifikatzen garelako, haiekin bat egin eta konpromisoak hartzen ditugu. Azken batean, konpromisoa da pertsonok gure gizarte elkarreraginetan konfiantza sortzeko dugun modua.



## Lotutako jokabideak

«Konpromisoa» deritzon balioak era eta neurri desberdineko inplikazioak ditu balio horren protagonistak diren hiru agenteen (gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen) jokabideetan.

### Herritarrak

Ikuspuntu pertsonaletik, konpromisoa egoteko, indibidualismoa eta gainerakoekiko eta denonarekiko axolagabetasuna gainditu behar ditugu. Gainera, erantzukizuna eta koherentzia behar dira konpromisoa betetzeko. Eta adorea eta kemena, proposatutakoa betetzeko bidean agertzen diren zailtasunak gainditzeko.

Zorioneko formulazio bati jarraikiz, esan dezakegu konpromisoak eskatzen duela errealitatearen «kargu hartzea» (kontzientzia hartzea), haren «karga hartzea» (kostuak norberaren gain hartzea) eta hartaz «enkargatzea» (modu antolatuan kudeatzea).

Gizarte erakundeak bide egokiak dira herritarren konpromisoa bideratzeko eta posible egiteko, eta borondate eta ahalegin indibidualak eransteko eta koordinatzeko jauzi kualitatiboa egitea lortzen dute.

Bestalde, gizarte erakundeak konpromisoan egoki kokatzeko, denon onaren ikuspegia hartu behar dute, gizartean egoera ahulenean dauden pertsonak lehenetsi behar dituzte. Hala egin ezean, beren kideen autolaguntzarako erakunde kolektibo bilakatzen dira, kanpokoarekiko konpromisorik gabe.

Gainera, gizarte erakundeek herritarrak konpromisoan hezteko eskola izan behar dute, pertsona konprometituak sortzeko; zeregin horretan ordezkaezinak dira.

### Udala

Udalaren konpromisoa egoki bete dadin, erakunde publikoetan sarritan nagusi den logika alderdikoia gainditu beharra dago. Udalak herritarrekin dituen konpromisoak bete behar ditu, onuradunen atxikipen politikoari aditu barik, hauteskondeetan izan dezakeen kostuari erreparatu barik eta, betiere, konpromisoak betetzeak epe luzera ekarriko dituen ondorio onak dituela gogoan.

Gainera, beharrezkoa da udal gobernuak politika erabat gardena egitea hartutako konpromisoari dagokienez (konpromisoen betetze mailaren jarraipena), horrela, herritarrek kontrolatzeko aukera izan dezaten, azken finean haien aurrean eta haiekin hartu baitu konpromisoa.

# Justizia soziala

## Definizioa

Justizia soziala gizarteko ondasunen banaketa zuzena lortzean datza; horrela, pertsona guztien duintasuna eta gizarte kohesioa ziurtatzeko. Justizia sozialak esangura bikoitza du. Alde batetik, gizarte bizitzaren printzipio bat da, eta banakoaren ekintza eta erakundearen ekintza gidatzen ditu erkidego politikoan. Bestetik, pertsonen izaeraren ezaugarri bat da, gainerako pertsonen duintasuna errespetatuz jardutea, hain zuzen ere. Bi adieretan, denon ona interes pribatuari gailentzen zaio. Justizia sozialak hiru dimentsio ditu:



- o Aberastasuna banatzeko mekanismo eraginkor nahikoak behar ditu, gutxieneko baldintza materialak bermatzeko, pertsona orok oinarritzko askatasunak (Giza Eskubideetan adierazitakoak) baliatu ahal izateko.
- o Gainera, desberdintasunak aitortzeko gizarte dinamikak ere behar ditu, horrek bidegabekeria ez materialak konpontzeko eta integrazioa errazteko ahalmena indartzen duelako eta, horrela, erkidego politikoaren loturak sendotzen direlako.
- o Azkenik, denon interesekoak diren jardueretan parte hartzeko gero eta aukera gehiago eskatzen ditu; horrela, gizabanakoaren garapena eta erkidego politikoaren garapena sustatzen da, denon duintasunaren aitortzearen oinarrituta.

## Lotutako jokabideak

«Justizia soziala» deritzan balioak era eta neurri desberdineko inplikazioak ditu balio horren sustatzaileak diren hiru agenteen (gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen) jokabideetan, bakoitzaren rol sozialaren arabera.

### Herritarrak

Herritar zuzenengandik espero da, lehenengo eta behin, behar besteko heldutasuna edukitzea interes publikoari lehentasuna emateko pribatuaren gainetik, eta harremanetan bestearen duintasuna aintzat hartzeko eta besteek berdintasun egoeran parte hartzeko gaitasuna dutela onartzeko. Gainera, pribilejiozko posizioei uko egitea espero da, bai eta kontzientzia argia izatea gainerako herritarrekiko interdependentea dela eta haiekin batera sortzen dituela oinarrizko askatasunak eta haien baldintza materialak eragozten edo errazten dituzten botere harremanak.

### Gizarte erakundeak

Gizarte erakundeengandik espero da denon onak interes pribatuaren gainean duen nagusitasunaren kontzientzia izatea. Giza eskubideez bereziki arduratzeko eskatzen zaie, batik bat oinarrizko askatasunei bide ematen dieten baldintza materialen bermeari dagokionez. Desberdintasuna (bai materiala, bai aintzatespenari dagokiona) zuzentzeko ekintzak inplementatzeko duten ahalmena erabiltzeko eskatzen zaie, eta elkarlaneko gizarte harreman zuzenak landu ditzaten espero da, batzuen irabazia sekula ez dadin oinarritu gainerako herritarren bazterketan, bereizkerian edo duintasuna behar bezala aintzat ez hartzean. Jokabide horiek toki mailan eta maila globalean espero dira.

### Udala

Udala da justizia sozialaren mailarik kolektiboena eta politikoena; izan ere, herritarren arteko harremanen eredu da, botereari dagokionez. Erakunde honen zeregina da egiturazko bidegabekeria minimizatzen politikak publikoak diseinatzea eta legeria egokia prestatzea toki mailan. Udalaren lanaren bitartez, gainera, ikusi ezin dena agerian uzten duten gizarte aitopeneko dinamikei eman behar zaie bide, bai eta parte hartzearen sustapenari ere; denon ona sustatu eta lehenetsi behar da, gizartean eztabaidatu eta adostutako irizpideekin, eta arretea eskaini behar zaie interes legitimo guztiei, modu orekatuan garatu daitezten.



# Aniztasuna

## Definizioa

Aniztasunak subjektuen arteko desberdintasuna edo bereizketa adierazten du. Balio hau bazterketaren aurkakoa da, erabat, eta pertsona errespetua zor zaion izakia delako uste sendoan oinarritzen da (1948ko Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren hitzaurrea eta 2. art.). Honako ezaugarri hauek ditu:

- o Sexu aniztasuna; hau da, era guztietako sexu orientazio edo identitateak.
- o Kultura edo erlijio aniztasuna; adierazpen horren bidez esan nahi da gizarte berean kultura edo erlijio desberdinak daudela.
- o Aniztasun ideologikoa eta politikoa; termino horrek erkidego politiko jakin batean dauden aukera ideologiko eta politikoen pluraltasuna adierazten du.
- o Aniztasun funtzionala; adierazpen horren bidez, pertsona bakoitzaren gaitasun bereziak nabarmentzen dira. Konnotazio negatiboak dituzten beste termino batzuk ordezkatu ditu, besteak beste, ezgaitasuna, desgaitasuna edo minusbaliotasuna.



Pertsonak, erakundeak edo instituzioek kultura bakarra edo sexualitatea ulertzeko modu bakarra edo izateko modu bakarra dagoelako iragazkiaren arabera pentsatzen dutenean, aniztasunaren gaitzespenak eta jarrera diskriminatzaileak sortzen dira, agerikoagoak edo ezkutukoagoak. Zuzeneko bazterkeria gertatzen da pertsona bat, arraza, jatorria, etnia edo erlijioa edo desgaitasun bat edo sexu aukera dela eta, modu kaltegarrian tratatzen denean, egoera bertsuan dagoen beste pertsona baten aldean. Eta zeharkako bazterkeria gertatzen da ustez neutroak diren xedapen, irizpide edo jardunbideek arraza jatorri, etnia edo erlijio jatorri jakin batekoa den edo desgaitasunen bat duen pertsona desabantailan jartzen

dutenean, beste pertsona batzuen aldean. Aniztasunarekiko errespetua benetakoa izateko, berdintasunaren arrazoizko maila bat sustatu behar da gizartean, banaketa-justiziaren eta gizarte eskubideen praxiaren ondorioz (aniztasun balioa elkartasun balioari lotuta).

## Lotutako jokabideak

«Aniztasuna» deritzan balioak era eta neurri desberdineko inplikazioak ditu balio horren sustatzaileak diren hiru agenteen (gizabanakoen, gizarte zibileko erakundeen eta erakunde publikoen) jokabideetan.

### Herritarrak

Aniztasuna sustatzen duen pertsonarengandik espero da apurtu egingo duela konturatu barik izan ohi dugun identitatearen ikuspegi monolitikoarekin; horrela, apurtu egingo da gizakiak normalean partaide sentimendu bera duten pertsona eta taldeekin bakarrik lotzeko izaten duen joera. "Bestea" (pluralean) bilatzeko irekitzeak ez du, ordea, erlatibismo ulerkorrik ekarri behar, alegia, ez du eragotzi behar giza duintasuna defendatzen duten balioen gainean konpromisoa hartzea. Halako jarrerak aniztasunaren kudeaketa aldatzeko ekintzetan gauzatu behar dira, norberaren ahalmenen arabera.

### Gizarte erakundeak

Espero da euren barneko eta kanpoko jarduera diseinatzeko orduan kulturalki eta funtzionalki askotarikoak diren sektoreen parte hartzea eta integrazioa sustatzea. Horretarako, "Bestea" ezagutu behar da, aurreiritziak eta estereotipoak desagiteko. Desberdina baloratzeak ez du esan nahi onartezinak diren planteamendu eta jokaerak onartzea, edo ez kritikatzeko. Esaterako, emakumea gutxiesteko tratua. Horrelako jokaerek giza duintasuna kaltetzen dute, eta ez dago justifikaziorik jokaera hori ez salatzeke eta harekin amaitzeko lan ez egiteko.

## Udala

Erantzukizun publikoko eremu honetan, jarduera egokiak bultzatu behar dira helburu hauek lortzeko: a) eraginkortasunez laguntzea, politika publikoen bidez, bazterkeria sozialaren, ekonomikoaren, politikoaren eta kulturalaren mekanismoak ezabatzen, eta kulturen arteko elkarriketarako eta aniztasun funtzionala aitortzeko proposamenak garatzen; b) pedagogia egitea, bazterkeria nola sortzen den erakusteko eta aurreiritziak eta estereotipoak elikatzen dituzten diskurtso demagogikoak eta populistak egoteak dakartzan arriskuak zein diren erakusteko; c) erakunde publikoetan aniztasun funtzionala eta kulturala agerian uztea eta, horretarako, plataforma egokiak sortzea eta dinamizatzea.